

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

### Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko maiatzaren 25ean**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

#### 12.1- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kultur programa eta sormen dirulaguntzen onuradunak onartzea norgehiagoka-prozeduraren bidez.

Adierazi da proposamenean akats bat dagoela 5. puntuko gastu onarpenean: 94.600€ izan beharrean 94.539,31€ da. Momentuan bertan akatsa zuzentzen da eta alkate-udalburuaren 2023ko maiatzaren 25eko proposamenak, akatsa zuzenduta, honela dio:

**Gaia:** Kultur programa eta sormen dirulaguntzen onuradunak onartzea norgehiagoka-prozeduraren bidez.

German Meabebasterrechea Arregui jaunak, Oñatiko kultura zuzendariak, ziurtatzen du 2023ko maiatzaren 23ko datuz kultura batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela:

*“Kultur programa eta sormen dirulaguntzak\_2023*

*Udaleko KULTURA zuzendaria naizen honek honako txostena ematen dut:*

<i>Espediente zk.:.....</i>	<i>2023ZDKO0005</i>
<i>Espedientearen helbidea:.</i>	<i>OÑATI</i>
<i>Udalerrria:.....</i>	<i>Oñati</i>
<i>Interesduna:.....</i>	<i>OÑATIKO UDALA</i>
<i>Prozedura: .....</i>	<i>Udalak emandako diru-laguntzak (konpetentziaz)</i>
<i>Sarrera erregistroa:.....</i>	<i>0000 / 000000</i>

OÑATIKO UDALA (e)k hasitako prozedura aztertu da.

**Gaia:** kultur elkarteei zein norbanakoei zuzendutako 2023ko dirulaguntzen onuradunen zerrenda eta aurkezturiko proiektuak eta sormen lanak finantzatzeko dirulaguntzak onartzea.

#### **AURREKARIAK:**

2023ko maiatzak 23, asteartea, egindako Kultura batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo gai proposamenak, kultura unitateko zuzendariak (German Meabebasterrechea Arregi jaunak) bere aktan jasotzen duenez:

**“Gaia: 2023ko Sormen (B lerroa) eta kultur programa eta proiektuen (A lerroa) dirulaguntzak.**

Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran aho batez ondorengo akordioa onartu zuen: Oñatiko Udalak Kultura Unitatearen kontura emango dituen dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak eta zehatzak (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 21, 51.zbk.).

Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 2an egindako bileran, besteak beste, 2023ko ekitaldiari dagokion deialdia onartu zuen (2023ko martxoaren 23an, osteguna, argitaratua - BDNS, identifikatzailea: 680763).

2023ko aurrekontu ekitaldiari dagokion laguntzetarako, guztira, laurogeita hamalau mila eta seiehun euroko (94.600€) gastua baimendu zen 1.0800.480.334.00.01.2023 (335) kontu sailaren kargura:

- **A lerroa: Kultur proiektuak eta programak garatzeko, hirurogeita hamazazpi mila (77.000€) euro.**
- **B lerroa: Kultur sormen lanetarako: hamazazpi mila eta seiehun (17.600€) euro.**

Dirulaguntzak eskatzeko epea, 2023ko martxoak 24tik apirilak 24ra artekoa izan da.

**AURREKARIEN BALORAZIOA:**

Jasotako eskaera guztien dokumentazioa aztertu da eta oinarri zehatzetan jasotako puntuazioren arabera aurre-balorazioa egin du Kultura unitateak. Kultura Batzordearen azterketara jarri da aurre-balorazioaren proposamen txostena:

Izapidetzea fasea eskaera bakoitzarekin hasi da, Kultura unitateak egin duen aurre- ebaluazioan: onuradunen baldintzak eta dokumentazioa egiaztatzea.

Hau horrela, Oinarri orokorreko “13.Artikulua: ordainketa erak eta epeak ” xedatutakoaren arabera eskatzaileek, oinarrietan zehazturiko modu eta epeetan aurkeztu dute dokumentazioa. Guztiek, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzte ( Oinarri orokorrak 1.artikulua: dirulaguntza eskatzeko baldintzak ).

**Azpimarratzekoak:**

**Eskatzailea: Iban Aguirre Agiriano jaunak, ( sarrera erregistroa 2023/ 2311) eta Eneko Aritza Olaeta jaunak, (sarrera erregistroa 2023/2601) Udaleko bi sailetan, Kultura eta Gazteria, aurkezten dituzte sormen lanak.**

Dirulaguntza lerroa hautatzeko irizpidea:

Aurkezturiko bi sormen lanak, sail bakoitzeko dirulaguntzen oinarrietan jasotako irizpideak alderatuta aztertu dira. Azterketaren ondorioz, **Kultura Batzordeak honako hau proposatzen du:**

Iban Aguirre Agiriano jaunak eta Eneko Aritza Olaeta jaunak, bakoitzak aurkezturiko sormen lanak Gazteria Saileko “Gazte Elkarte eta sormen lanetako” 2023ko diru laguntza lerroan onartzea eta izapidetzea.

**Eskatzailea: OGA Afizionatuen Elkarteak ( Sarrera erregistroa 2023/ 2325): “Kultura Faktoria “ proiektua aurkezten du Sormen laneko ( B lerroa) dirulaguntzetara.**

Dirulaguntza lerroa hautatzeko irizpidea:

Aurkezturiko lana , 2022-2023. ikasturteko aurreko, bitarteko eta osteko proiektuak jasotzen dituen aldizkaria da. Aldizkariaren zabalkundea eta argitaratzea gauzatzeko dirulaguntza eskatzen da.

Sormen lanen oinarri arautzaile zehatzak ( 4. Artikulua: ebaluaketa eta esleipen irizpideak) jasotzen duena kontuan izanda, eta aurkezturiko proiektuaren balorazioa gauzatu ondoren:

**Kultura Batzordeak, aurkezturiko “Kultur Faktoria proiektua”, Kultur programa eta proiektuen (A lerroan) dirulaguntza lerroan onartzea eta bertako esleipen irizpideekin baloratzea proposatzen du.**

**Eskatzailea : OGA Ganbara Faktoria ( Sarrera erregistroa 2023/ 2327): “ Faktoria Musika kanala “ proiektua aurkezten du Sormen laneko ( B lerroa) dirulaguntzetara.**

Dirulaguntza lerroa hautatzeko irizpidea:

Aurkezturiko lanaren helburua :Euskal konposatzaileen musika mundura helaraztea, Abesbatza musikaren balioa nabarmentzea eta Oñati herrian sortzen den kultur mugimendua ezagutaraztea da.

Sormen lanen oinarri arautzaile zehatzak ( 4. Artikulua: ebaluaketa eta esleipen irizpideak) jasotzen duena kontuan izanda , eta aurkezturiko proiektuaren balorazioa gauzatu ondoren:

**Kultura Batzordeak, aurkezturiko “Faktoria Musika kanala” Kultur programa eta proiektuen (A lerroan) dirulaguntza lerroan onartzea eta bertako esleipen irizpideekin baloratzea proposatzen du.**

Hau horrela eta A eta B dirulaguntzen lerroen zenbatekoan xedatutakoari jarraituz, Kultura batzordeak eskaerak aztertu eta kultur programal/ proiektu zein sormen dirulaguntzen honako banaketa proposatzen du:

*A lerroa: Kultur proiektu eta programak garatzea.*

<b>A LERROA: Kultur programak eta proiektuak garatzeko dirulaguntzak 2023</b>				
<b>Erregistroa</b>	<b>Erakunde onuraduna</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>60%</b>	<b>40%</b>
2648	<i>Irazan Antzerki Taldea</i>	2.530,00 €	1.518,00 €	1.012,00 €
2583	<i>Algaraz Ikuskizun Elkarte</i>	3.520,00 €	2.112,00 €	1.408,00 €
2591	<i>Oñatiko zizelkatzaileen elkarte</i>	2.970,00 €	1.782,00 €	1.188,00 €
1906	<i>OMT</i>	3.080,00 €	1.848,00 €	1.232,00 €
2271	<i>Nabarralde fundazioa</i>	3.410,00 €	2.046,00 €	1.364,00 €
2509	<i>Txinparta Bertso Eskolia</i>	3.520,00 €	2.112,00 €	1.408,00 €
1735	<i>Oñati Abesbatza</i>	3.190,00 €	1.914,00 €	1.276,00 €
2635	<i>Lizargarate Trikitizale Elkarte</i>	4.290,00 €	2.574,00 €	1.716,00 €
2674	<i>Ilunpetan</i>	3.410,00 €	2.046,00 €	1.364,00 €
2634	<i>OLR</i>	1.760,00 €	1.056,00 €	704,00 €
2329	<i>OGA</i>	10.340,00 €	6.204,00 €	4.136,00 €
2381	<i>Aequus Ensemble</i>	3.190,00 €	1.914,00 €	1.276,00 €
2355	<i>Ganbara Kantu Eskola</i>	10.120,00 €	6.072,00 €	4.048,00 €
2516	<i>Oñatz Dantza taldea</i>	10.450,00 €	6.270,00 €	4.180,00 €
2363	<i>Hots Abesbatza</i>	9.680,00 €	5.808,00 €	3.872,00 €
2431	<i>San Martin auzoa</i>	1.540,00 €	924,00 €	616,00 €
		77.000,00 €		

ESXUed9545a9-4312-4bba-84c1-2e4d04c0e7dd

**B lerroa: kultur sormen lanak garatzea.**

B LERROA: Sormen dirulaguntzak					
Erregistro zenbakia	Onuraduna / Beneficiario-Beneficiaria	Diruz lagunduko den lana/ Trabajo subvencionado	Dirulaguntza/ Ayuda	60%	40%
2043-2054	IXABEL AGIRRESAROBÉ	Larrumarruak haur liburua	1.478,99 €	888,00 €	590,99 €
2290	BIRA KOOP.ELK. TXIKIA LEIRE EGAÑA	Bost bide dokumentala	1.774,79 €	1.065,00 €	709,79 €
2175	BEÑAT ELORZA GURIDI Lee-kore taldea	CD grabaketa	1.478,99 €	888,00 €	590,99 €
2325	OGA Barbara Lamas Tabares	Aldizkaria	A lerroa		
2326	HOTS ABESBATZA Barbara Lamas Tabares	Emakumeen abestiak	1.183,19 €	710,00 €	473,19 €
2327	GANBARA FAKTORIA. OGA Barbara Lamas Tabares	Kanala	A lerroa		
2365	GANBARA KANTU ESKOLA Barbara Lamas Tabares	Tartalo	1.478,99 €	888,00 €	590,99 €
2311	IBAN AGUIRRE AGUIRIANO Lehen lerroa taldea.	CD grabaketa	Gazteria		
2495	ANDER LIZARRALDE LIZARRALDE	Subversion X taldearen letren euskaratzea	728,00 €	436,80 €	291,20 €
2504	ROBERTO ALTUNA ERLE	Gure katona liburuxka	1.478,99 €	888,00 €	590,99 €
2601	ENEKO HARITZA OLAETA	Gerraosteko irrintziak	Gazteria		
2612	MADDI SANTA CRUZ	Lizartxo. Abestien grabaketa	1.183,19 €	710,00 €	473,19 €
2639 eta 2640	JOSE JAVIER YANIZ Mila Modu	CD eta bideoklip grabaketa	1.774,79 €	1.065,00 €	709,79 €
2649	FELIPE URIARTE CAMARA	Euskara-Sherpera hiztegia	1.183,19 €	710,00 €	473,19 €
2660	HORTENSIA ALCALA GARCIA	Lontananza Liburua	434,00 €	260,40 €	173,60 €
2664	KARMELO ALBERDI ONRAITA Txuletons	CD grabaketa	1.183,19 €	710,00 €	473,19 €
2675	OÑATZ+ILUNPETAN	Argazki bilduma, erakusketa	700,00 €	420,00 €	280,00 €
2676	MARTIN TTIPIA KULTUR ELKARTEA IÑIGO GONZALEZ/ BEÑAT MADARIAGA	Gebarako gaztelua dokumentala	1.478,99 €	888,00 €	590,99 €
			<b>17.539,31 €</b>		

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Hau horrela, dirulaguntzen ordainketa honela bideratzea proposatzen du kultura Batzordeak:

Dirulaguntzak bi zatitan banatzea:

Onarpenarekin batera, diruaren (%60)emango zaie kultur eragile edo/eta norbanako bakoitzari.

Egitasmoa burutu ondoren, edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute. Epea: azaroak 30a baino lehen.

Jardueren likidazioa onartu ondoren, eta ekitaldi guztiak burutu direla egiaztatutakoan, beharrezko dokumentazioa aurkezten bada eta gastu ekonomikoa dagokion gastu frogagarrien bidez zurtzen bada: (%40 ) ordainduko zaie. Zuriketa egiteko formularioa, Oñatiko Udalaren dirulaguntzen web atarian eskuratu ahal izango dira.

#### PROPOSAMENA:

Gaia aztertu ondoren, Kultura Batzordeak aho batez eskatzen dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari :

**Lehenengoa.**- Kultura Batzordeak onarturiko Kultur programa/ proiektu eta sormen lanen onuradunen banaketa berrestea.

**Bigarrena.**- Iban Aguirre Agiriano jaunak eta Eneko Aritza Olaeta jaunak, bakoitzak aurkezturiko sormen lanak Gazteria Saileko "Gazte Elkarrekin eta sormen lanetako" dirulaguntza lerrotik izapidetzea, onartzea.

**Hirugarrena.** - OGA Afizionatu Elkarrekin aurkezturiko " Kultur Faktoria aldizkaria " proiektua Kultur programa eta proiektuen (A lerroa) dirulaguntza lerroan onartzea eta bertako esleipen irizpideekin baloratzea.

**Laugarrena.**- OGA Afizionatu Elkarrekin aurkezturiko " Faktoria Musika kanala " proiektua Kultur programa eta proiektuen (A lerroa) dirulaguntza lerroan onartzea eta bertako esleipen irizpideekin baloratzea.

**Bostgarrena.**- 2023ko dirulaguntzen deialdia ebatzea eta laurogeita hamalau mila bostehun eta hogeita hemeretzi koma hogeita hamaika (94.539,31€) euroko gastua baimentzea dagokion partida eta bere lotespen mailaren kontura eta goian aipaturiko baldintzapean.

**Seigarrena.**-Onarpenarekin batera, dirulaguntzaren (%60) onartzea eta Kultur/eragile zein norbanako bakoitzari dirulaguntzaren %60a ordaintzea.

Egitasmoak burutu ondoren edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute azaroak 30a baino lehen.

Jardueren likidazioa onartu ondoren eta ekitaldi guztiak burutu direla egiaztatutakoan, beharrezko dokumentazio guztia aurkezten bada eta gastu ekonomikoa dagokion gastu frogagarrien bidez justifikatzen bada, dirulaguntzaren (%40) onartzea eta ordaintzea.

**Zazpigarrena.**-Ebazpen hau laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatuko du. Jakinarazpena egizat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita. Interesdunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalgo dute ebazpenaren eduki osoa.

**Zortzigarrena.**-Dirulaguntza hauen onuradunak Datu Base nazionalean(BDNS) argitaratzea.

**Bederatzigarrena.**-Erabaki Kontuhartzaille /Diruzaintza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan."

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

**38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:**

**30.2 artikulua:** "Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitorzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztapenak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."

**34.3 artikulua:** "Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:  
"1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, kultura batzordearen onetsiarekin, tokiko gobernu batzarrari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Kultura Batzordeak onarturiko Kultur programa/ proiektu eta sormen lanen onuradunen banaketa berrestea.

**Bigarrena.-** Iban Aguirre Agiriano jaunak eta Eneko Aritza Olaeta jaunak, bakoitzak aurkezturiko sormen lanak Gazteria Saileko “Gazte Elkarte eta sormen lanetako” diru laguntza lerrotik izapidetzea, onartzea.

**Hirugarrena.-** OGA Afizionatu Elkarteak aurkezturiko “Kultur Faktoria aldizkaria” proiektua Kultur programa eta proiektuen (A lerroa) dirulaguntza lerroan onartzea eta bertako esleipen irizpideekin baloratzea.

**Laugarrena.-** OGA Afizionatu Elkarteak aurkezturiko “Faktoria Musika kanala” proiektua Kultur programa eta proiektuen (A lerroa) dirulaguntza lerroan onartzea eta bertako esleipen irizpideekin baloratzea.

**Bostgarrena.-** 2023ko dirulaguntzen deialdia ebaztea eta laurogehit hamalau mila bostehun eta hogeita hemeretzi koma hogeita hamaika (94.539,31€) euroko gastua baimentzea dagokion partida eta bere lotespen mailaren kontura eta goian aipaturiko baldintzapean.

**Seigarrena.-** Onarpenarekin batera, dirulaguntzaren (%60) onartzea eta Kultur/eragile zein norbanako bakoitzari dirulaguntzaren %60a ordaintzea.

Egitasmoak burutu ondoren edo/eta argitalpenak eginak daudenean, jardueren memoria eta jardueren kostu ekonomikoa aurkeztu beharko dute azaroak 30a baino lehen.

Jardueren likidazioa onartu ondoren eta ekitaldi guztiak burutu direla egiaztatutakoan, beharrezko dokumentazio guztia aurkezten bada eta gastu ekonomikoa dagokion gastu frogagarrien bidez justifikatzen bada, dirulaguntzaren (%40) onartzea eta ordaintzea.

**Zazpigarrena.-** Ebazpen hau laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du. Jakinarazpena egizat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpeta argitaratu eta biharamunetik hasita. Interesdunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Zortzigarrena.-** Dirulaguntza hauen onuradunak Datu Base nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**Bederatzigarrena.-** Erabakia Kontuhartzaile /Diruzaintza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

---

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araberan.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**

**Alkatearen O.I.**

Izaro Elorza Arregui

**IDAZKARIA**

Iñigo Roldan Catalan

